

0 negatiboa

0 negative

Arantzazu Lizartza Saizar

Medikuntzan graduatua EHU. Familia eta Komunitate Medikuntzan espezializatua OSI Donostialdean (Osakidetza). Lehen Arretan egiten du lan.

aran.lizartza@gmail.com

Laburpena

Literatura zientifikora doitu ezin, baina Medikuntzarenak berarenak diren gatazka, hausnarketa, ironia, kontraesan eta edertasunetik abiatuta bestelako literatura - poesia- egiten da liburu honetan.

Gako-hitzak: literatura, poesia, Medikuntza.

Abstract

This book creates a different kind of literature -poetry- that cannot be adapted to scientific literature, but is based on the conflict, reflection, irony, contradiction and beauty that are inherent to Medicine.

Keywords: literature, poetry, Medicine.

1. Mamia

Medikuntza ikas daiteke Anatomiako atlas, Farmakologiako tratatu edo Patologiako liburuetan; Medikuntzaren ezagutza zabaltzeko daitezke azken eguneraketa edo paper-ak irakurritik. Medikuntzaz jakiteko beste hiztegi bat osatu (kolangiopankreatografia, Daridodexant, kreatinkinasa) eta hizkuntza siglatara doitu behar da ("KOT" Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia; "bb" behar badu...). Medikuen buruan beti egon da hurrengo eskema atzera-aurrera (lanean eta bizitzan): aurrekariak (ez ahaztu alergia galdetzeaz), oraingo gaixotasuna, behaketa fisikoa, proba osagarriak, diagnostikoa eta plana.

Medikuntzaren praktikak, ordea, kasu bakoitzaren irakasketa ez duen kontuak. Medikuntzaren praktikak edaten du, ezinbestean, Zientziaren gaineko beste ezagutza-adarretatik; Filosofiatik, kasu. The Lancet-en plazaratuko ez diren, baina Medikuntzak Filosofiaren premia duela, arteriak zainena nola, adierazten duten poemak aurki daitezke 0 negatiboa poema-liburuan.

Liburua lau ataletan dago banatua, eta bidaia baten moduko bidea egitea du helburu: pazientetik mediku edo zainetara, gaixotasun baten ondorioz hildako alabarera eta azkenik norbere gorputzera.

"Bizitza ez da laborategian kabitzen" da lehenengo atala, eta, lehenengo poemak argitzen da atalaren izenburuaren esanahia. Atal honetan, kritika-poemak daude; kritika egungo osasun-sistemaren egituraketari, osasunaren ulkerari berari, erabiltzen dugun hizkuntzari, kapitalismoari, besteak beste:

Arantzazu Lizartza

“izen-abizen bat ez da hamar minutuan ezagutzen”, “ez ditut sekula gorputzak hustu”... Pazientea dago atal honetan erdigunean; tartean, beraz ulertuko ez ditugunak ere aipatuko dira, “Mesanotxeko argazkia” poeman kasu.

Bigarren zatia “Ematearen sindromea” deitzen da, eta “Zaintzaileak” deitzen den lehen poemak ematen dio zentzua liburuaren izenburuari; hots, 0 negatiboa kontzeptuari. Izan ere, jakina da 0 negatiboa odol-taldearen berezitasuna emaille unibertsala dela; jaso, oster, beretik besterik ez duela egiten. Alegoria paregabea deritzot zaintzaileen/on rola azaltzeko: beti, edonori, emateko prest; jasotzeko, aldiz, gure eran, guretik. Hortik dator liburuaren izenburua, eta, bigarren atalean, eginkizun laboral zein sozial horrek —zaintzeak— dakartzanak biltzen dira.

Doluaz mintzo dira azken-aurreko ataleko poemak, gasolinaz perfumatutako poemak, dolu bat. Medikuntza ikastera bultzatu duen aita baten gaixotasuna, Graduako lehen urteko azterketa finalean aita-ren heriotza bera eta, egun, mediku gisa jada, bizipen horiek nola baldintzatu duten errimatzen da atal honetan. Liburuko atalik pertsonal eta garratzena, akaso:


“Gorputza hiltzen denean, gorpua.

/ Aita hiltzen denean,...?”.

Amaierako atala “Bisturiak hautsontzian” da. Gorputzaren alderdi ilunak, gaixoaldiak, jasotzen dira azken poemetan. Izenburuak berak nahiko traza iluna du, eta bilatua izan da, sarrera bat emateko etorriko denari: bisturiak irekitzeko erabiltzen ditugu, ireki ahala azala zauritzen dugu, ordea, eta, era desegokian erabiliz gero, hautsontzian amaitu dezakete lantzetek. Hala dio hilerokoaren inguruko poema batek, adibidez: “Usadioa lapurtzen digutenean / zauriak egiten ditugu / azkazalak hilean behin / gorri koloreko manikura / luzitu dezaten”. Liburua ixten duen poema, errepikapenean oinarritutako poema bat da, non esaldi orok gorputza hitza duen abiapuntu, eta “Krak” batekin amaitzen da.

Kontrazalean, berriz, iruzurgile-sindromearen inguruko poema bat dago. Akaso zuetako inor ez da sentitu iruzurgile Medikuntzan?

Besterik gabe, Zientzia —eta, beraz, Medikuntza— poesiaz beteta dagoela aditzera emateko ahalegin bat izan da hau. Annie Ernaux idazle frantziarrak maiz esan bezala: “nire sentimenduak ere badira gureak, sozialak”. Horregatik, espero poema hauek, nireak bezainbeste, zuenak ere izatea.



Argitaletxea: Pamiela

Generoa: Poesia

Edizioa: 1

ISBN: 978-84-91724-44-5

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2025 ira 16

Orri kopurua: 104